



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**51. zenbakia**

2019ko otsailak 7 – 21

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### **Big data eta soziolinguistika ikerketaren inguruko mintegia**

Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoak urtean zehar egin ohi dituen barne-mintegien programaren baitan, Big data eta soziolinguistika ikerketaren inguruko saioa egin zen otsailaren 7an. Jordi Morales i Grau EHUko ikerlari eta Big data aholkularia izan zen mint...

---

## Ikerketak

### **Ekonomisten iritziak "euskara lan eta enpresa munduan" gaiari buruz**

Ekonomisten Euskal Elkargoak urte amaieran egin ohi duen Ekonometro txostenean EAeko ekonomisten artean egindako inkestaren emaitzak jasotzen dira. 2018ko abenduko edizioan, hizkuntzaren inguruko zenbait gai jorratu ditu.

---

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### Euskararen transmisioa mintegia martxoaren 12an Eibarren

Euskararen erabileraz arduratzen garenok, ezin dugu erabilerarako ezinbestekoa den transmisioaren gakoa alde batera utzi, transmisioak gaitasuna ez ezik, hizkuntzarekiko baloreak eta ardura ere dakartzalako. Dakiguna gure ondorengoei ematen diegunean hizkuntza horrek...

---

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### 'Arnasguneen prebentziotik garapenera: Lurraldea eta Hizkuntza IV jardunaldiak' liburua, eskuragai

UEMAK, Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEUK, Kontseiluak eta Gaindegiak antolatuta urrian Azpeitian izandako jardunaldien edukia biltzen duen liburua osatu eta plazaratu du Udako Euskal Unibertsitateak.

### Txillardegiren biografia eta testu hautatuak biltzen dituen liburu saila argitaratu dute

Txillardegiri eskainitako sailarekin abiatu du Jakinek 'Dabilen pentsamendua' liburu bilduma. Jakinek eta UPV/EHUK elkarlanean osatu dute bilduma. Txillardegiren biografiarekin ekin dio, eta AEKren babesa jaso du lehen liburu honek

### Xamarren 'Etxera bidean' liburua

2019ko otsailaren 14an, Xamarrek Donapaleun aurkeztu zuen bere belaunaldiaren ibilbidea biltzen duen liburua: Etxera bidean. Nola belaunaldi akulturatuak, bere buruaz 'beste' egitera dedikatu dutenak, nerabe garaian deskubritu zuen bere muineko izatea gorderik eta es...

### Critical Inquiries in the Sociolinguistics of Globalization

The contemporary world is full of different languages. These languages are everywhere: Signage, advertisements, popular culture, social media, streets, classrooms, offices, gossip – you name it. These languages are chaotic, messy, unexpected and cluttered. They are...

## The story of Frisian in multilingual Friesland

In 'The story of Frisian in multilingual Friesland', sociolinguist Reitze Jonkman (NHL Stenden, Leeuwarden) and historical linguist Arjen Versloot (University of Amsterdam) tell the history of the Frisian language: where it comes from, how old it is and how it has chan...

## "Hizkuntza Indigenak eta Ezagutza" gaiari eskaini dio UNESCOk Courier aldizkariaren zenbaki bat

Urtean lau alditan argitaratzen den aldizkariak bat egin du Nazioarteko Hizkuntza Indigenen urtearekin.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

## Bestelako albisteak

### Nokaren galera [BIDEOA]

Noka ia hil den honetan, bada gertaera hau ikertu eta noka berreskuratzeko ahaleginean hasi denik; emakumeak ahalduntzeko tresna garrantzitsua delakoan baitaude. Esperientzia hauek bildu eta bideo erreportaje hau egin du Argiak, Larrun aldizkariko idatzizko erreporta...

### Kike Amonarriz: "Iruditzen zait post-euskalki fasean gaudela"

Azken aldian otar askotan ditu sagarrak Kike Amonarrizek (Tolosa,1961). Soziolinguistikara itzuli da buru belarri, makillajea eta fokoen beroa alde batera utzita. Euskara da bere lanabesa, bere kezka, bere poza eta etorkizunerako erronka. EITBn urte asko igaro ditu p...

### "Euskara ikasita, atzerritar euskaldunok leku berezia daukagu euskal gizartean"

Dylan Denny-Stearn Inglis, Ingalaterrako Devon probintzian jaioa da, 1998an. Duela bi urte, Durham unibertsitatean giza zientziak ikasten ari zela, urte sabatikoa hartu zuen Euskal Herrira etorrira euskara ikasteko. Iazko abenduan EGA titulua erdietsi zuen. Bost mint...



**Babeslea:**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**Bazkide partaidea:**

